

BERRI OROKORRAK

2025eko urriaren 31ean

8. zenbakia

“EUSKARAZ BIZI NAHI DUT” material eskaintza

“Euskaraz bizi nahi dut” **materiala** eskatzeko azken eguna azaroaren 4a izango da, **asteartea**.

Aukeratutako produktua zein den **tutoreari jakinarazi**. **Ordainketa eskudirutan** egin behar da (eskariarekin batera tutoreari emanaz).

Produktuen irudi eta neurriak [hemen](#) topatuko dituzue.



Jangela-zerbitzua

Jangelako bazkaldarrek honako menua izango dute [azaroan](#). Intolerantziak dituzten pertsonen menuak [honakoak](#) dira.



Txokolatedun egutegiaren salmenta

Aurten ere, Hendaiaiko ikastolatik txokolate-egutegien salmenta-kanpainan laguntzeko proposamena egin digute.

Abenduaren 1etik 24ra irekitzeko 24 lehiatila ditu eta bakoitzaren atzean Baigorriko Laia txokolategiko txokolatea topatuko duzue.

Prezioa 12 eurokoa da eta **eskaera azaroaren 10a** bitarte egin daiteke [galdetegi hau](#) betez.

Eskaeraren **dirua tutoreari** emango zaio data horretarako.

Egutegiak azaroko azken astean jasoko dira.



Errigora

Hemen da berriz Errigoraren Euskarari Puzka kanpaina, Nafarroa erdi eta hegoaldean lanean ari diren euskalgintzako eragileen (AEK, Sortzen, Ikastolak eta Agerraldia) ezinbesteko lana sostengatzeko aukera.

Batu auzolan erraldoi honetara! [Saskiak](#) eskatuz, balioaren %25a Ager zonaldeko euskalgintzara bideratuko da zuzenean. Ureztatu dezagun euskara denon artean!



Ohar orokorra

Ikastolako eremu guztiak kerik gabeko eremuak direla gogorarazi nahi dizuegu eta ondorioz, erretzea guztiz debekatua dago.



HAUR-HEZKUNTZA

Paperezko poltsa

HH3, HH4 eta HH 5eko ikasleek, urtero bezala, hiruhilabeteko arte lanak etxera eramateko paperezko poltsa bat ekartzea eskatzen da.



1-2 urteko ikasturte hasierako bilera

Azaroaren 12an, asteazkena, arratsaldeko **17:00etan seme-alabaren gelan**, ikasturte hasierako bilera egingo da.

Ez da zaintza zerbitzua izango.

Bilerara haurrik gabe etortzea eskatzen da.



GALDUTAKO GAUZAK

Ikastolako sarreran daukagun galdutako gauzen kutxa arropaz gainezka dago. Begiratu ia ikasleen arroparen bat falta zaizuen, eta hala bada, agian, bertan aurkituko duzue.



LEHEN HEZKUNTZA

Pantailen erabilera egokia

LH 5eko eta LH 6ko ikasleak, azaroaren 7an eta 14ean, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzeko saioak egingo dituzte Miren Rosekin.



Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa

LH3tik DBH3rako ikasleek azaroan zehar Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa programan parte hartuko dutela jakinarazten dizuegu.

Programa hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol departamenduak bultzatu du eta Gipuzkoa osoko haur eta nerabeen ongizateari buruzko pertzepzioa ezagutzea du helburu.



Datozen egunetan, informazio gehiago jasoko duzue zuen etxeetan.

Galdutako gauzak


Ikastolako sarreran daukagun galdutako gauzen kutxa arropaz gainezka dago. Begiratu ia ikasleen arroparen bat falta zaizuen, eta hala bada, agian, bertan aurkituko duzue.



DBH

Pantailen erabilera egokia

Gaur, DBH 1eko ikasleak pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzeko saioak egiten hasi dira Miren Rosekin.



Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa

LH3tik DBH3rako ikasleek azaroan zehar Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa programan parte hartuko dutela jakinarazten dizuegu.

Programa hau Gipuzkoako Foru aldundiko kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola Departamenduak bultzatu du eta Gipuzkoa osoko haur eta nerabeen ongizateari buruzko pertzepzioa ezagutzea du helburu.



Datozen egunetan, informazio gehiago jasoko duzue zuen etxeetan.

DBH4koen gozogintza postua

Larunbatean, azaroak 1, DBH4ko ikasleek gozogintza postua jarriko dute herrian ospatuko den Artisanu Azokan ikasbidairako dirua ateratzeko. Postutik pasatzeko gonbita egiten zaizue guztioi.

